

ZENTROKO BATZORDEEN URTEKO TXOSTENA

INFORME ANUAL DE COMISIONES DE CENTRO

BERDINTASUNERAKO BATZORDEA **COMISIÓN PARA LA IGUALDAD**

ACTIVIDAD 2019/20 EKINTZAK

Batzordearen aktetan informazio gehiago eskura daiteke.
Más información disponible en las actas de cada comisión.

- Urrian, batzordeko lehenengo bileran Arabako azpibatzaordearen konposizio berria onartu zen.
- Martxoak 2ko astean, Arabako ataleko azpibatzaordeak zentroko sarreran panel handi bat prestatu zuen Marxoak 8ko deialdiaren inguruko informazioarekin eta norberaren ekarpenak egin ahal izateko materialarekin. Garbitzaileen grabarekin batera koinziditu zuenez, prestatutako ekimena ez zuen ia erreperkuziorik izan baina aipagarria da azpibatzaordeko estamentu ezberdinek (IIP, AZP eta ikasleak) batera egin zutela lan hura prestatzen eta montatzen.
- Azaroak 26an (Emakumeen Kontrako Indarkeria egunaren inguruan), Arabako azpibatzaordeko bi IIP kideek mintegi bat prestatu zuten Fakultate osoko irakaslegoari eta AZPri zuzendua zeinaren izenburua: "Reflexión del profesorado para la prevención de la violencia contra las mujeres desde la incidencia académica". Guztira 12 pertsonak hartu zuten parte eta hurrengo ikasturteko planifikazioan kontutan hartzeko zenbait proposamen atera ziren.
- Francisca Aculodi sarirako 5 lan proposatu zituen Batzordeak. Hautaketa irizpideak aplikatuz, Gizarte Langintzako 3 lan eta Lan Harremanetako beste 2 aukeratu ziren, guztira 4 euskaraz eta bakar bat erderaz. Gainera, ezarritako irizpideetan egokitzapenak egitea beharrezkoa zela identifikatu zen.

PLAN para 2020/2021 PLANA

- ✓ Batzordearen egitura bermatu, batez ere Leioako egoitzatik ordezkariak bilatuz (IIP eta ikasleak) eta Arabako atalaren kasuan, ikasle gehiagoren presentzia.
- ✓ Fakultateko GALak Francisca Aculodi deialdi berrira aurkeztea dagokionean
- ✓ Azaroak 25aren inguruan EHUko Genero Indarkerien aurkako protokoloa ezagutzera eramateko ekimenak aurrera eramatea, irakaslegoarekin eta ikaslegoarekin.
- ✓ EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzarekin harremana sendotu eta EHU mailan eta konkretuki gure Fakultatean egon daitezkeen praktika instituzional


sexistei buruz eta telelanaren eragina genero ikuspegiatik buruzko ezagutza zabaltzeko lankidetzaren proposatu.

- ✓ Fakultatearen espazio berrien berrizendapenarekin jarraitu: Arabako atalean Mary Richmond eta Concepción Arenal izenekin identifikatuz eta Leioako kasuan, espazio bakar baterako izendapena landu. Ahal bada, errotulazioan izen-abizenak ezezik, irudiren bat eta testu biografiko laburra gehituko litzateke.

Ixone Fernandez de Labastida Medina

Batzordeburua/Presidenta de la Comisión

2020 uztailaren 20an / 20 de julio del 2020

A handwritten signature in blue ink, appearing to be 'Ixone', written over a vertical line that extends above and below the signature.